Maider Argote Larrañaga (1, guztira 2)
IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA
Sinaduraren data: 29/10/2026
HASH: 49f133b7daa0c7000b43a58c63603a6fd

ENETZ EZENARRO ARRIOLA (2, guztira 2)
Representante Legal
Sinaduraren data: 29/10/2026
HASH: bd39594cf8be13c489ea4b6cada1ec44

ZIURTAGIRIA/ CERTIFICADO

ESPEDIENTE ZK./ EXPEDIENTE Nº	KIDE ANITZEKO ORGANOA/ ÓRGANO COLEGIADO	SAIOAREN DATA/ FECHA DE LA SESIÓN
351/2026	Osoko bilkura	27/10/2026

ORGANO HONETAKO IDAZKARIA NAIZEN ALDETIK, HONAKO HAU EGIAZTATZEN DUT:

Goian adierazitako egunean egindako bileran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zela:

351/2026 espedientea. Kontratazioak. GOÑATI tabernaren ustiapena		
Alde/ Favorable	**Bozketa mota/ Tipo de votación:** Ohikoa/ Ordinaria	**Gehiengo mota/ Tipo de mayoría:** Aho batezkoa/ Unanimidad

EGITATEAK ETA ZUZENBIDEKO OINARRIAK/ HECHOS Y FUNDAMENTOS DE DERECHO

Mendaroko Udalaren osoko bilkurak, 2026ko irailaren 29an, Goñati taberna ustiatzeko zerbitzu-emakida kontratatzeko espedientea eta espedienteari erantsitako bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterketa onartu zituen.

El Pleno del Ayuntamiento de Mendaro, en sesión de 29 de septiembre de 2026, aprobó el expediente de contratación de la concesión de servicios para la explotación del bar Goñati y el estudio de viabilidad económico-financiera incorporado al expediente.

Erabaki berean, administrazio-klausula partikularren agiria eta preskripzio teknikoen agiria onartu ziren, eta prozedura ireki bidez esleitzeko prozedura irekitzea xedatu zen. Era berean, urteko gutxieneko kanona ezarri zen, 4.500 eurokoa, eta hasierako iraupena urtebetekoa, urtez urte luza zitekeena, gehienez ere lau urtera arte, luzapenak barne.

En el mismo acuerdo se aprobaron el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y el Pliego de Prescripciones Técnicas y se dispuso la apertura del procedimiento de adjudicación mediante procedimiento abierto. Asimismo, se establecieron un canon mínimo anual de 4.500 euros y una duración inicial de un año, prorrogable por periodos anuales hasta un máximo de cuatro años, incluidas las prórrogas.

ZIURTAGIRIA
Zenbakia: 2026-0013 Data: 29/10/2026

Baliozkotze Kod.: 4W35ZXJZXZ23DHY2Q6LMCWHS6
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 4

Baldintza-agiriak berrikusi ondoren, aldatutako testuak onartzea proposatzen da, haien aurreikuspenak argitu eta koordinatzeko eta adjudikazio-irizpideak balio-judizioen mendeko 50 puntuko eta automatikoki ebalua daitezkeen 50 puntuko banaketa batera egokitzeko, kanonaren balorazioa 30 puntutan mantenduz.

Tras la revisión de los pliegos se propone aprobar sus textos modificados para aclarar y coordinar sus previsiones y adaptar los criterios de adjudicación a una distribución de 50 puntos sujetos a juicio de valor y 50 puntos evaluables automáticamente, manteniendo en 30 puntos la valoración del canon.

Aldaketak ez dira akats materialak zuzentze hutsa. Bidezkoa da, beraz, testu berriak berariaz onartzea eta prozeduraren izapidetze-egoerari dagozkion jarduketen atzeraeragina erabakitzea. Era berean, espediente horretarako kontratazio-mahai espezifiko bat izendatzea proposatu da.

Las modificaciones no constituyen una mera corrección de errores materiales. Procede, por tanto, aprobar expresamente los nuevos textos y acordar la retroacción de actuaciones que corresponda al estado de tramitación del procedimiento. Se propone igualmente designar una Mesa de Contratación específica para este expediente.

Idazkaritzaren txostena eta kontu-hartzailetzaren fiskalizazioa ikusita, era Informazio Batzordearen aldeko irizpena jasota, Udalbatzak aho batez honakoa ONARTZEN du:

Visto el informe de la Secretaría y la fiscalización de la Intervención, así como el dictamen favorable de la Comisión Informativa, el Pleno por unanimidad ACUERDA:

EBAZPENA/ RESOLUCIÓN

LEHENENGOA.- Administrazio-klausula partikularren agiriaren eta preskripzio teknikoen agiriaren testu aldatua onartzea. Testu hori erabaki honen eranskin gisa erantsi da, eta, lizitazioaren dokumentu gidari gisa, Osoko Bilkurak 2026ko irailaren 29an onartutakoak osorik ordezten ditu.

PRIMERO.- Aprobar el texto modificado del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y del Pliego de Prescripciones Técnicas que se incorporan como anexos al presente acuerdo y que sustituyen íntegramente, como documentos rectores de la licitación, a los aprobados por el Pleno el 29 de septiembre de 2026.

BIGARRENA.- Jarduketak aldatutako baldintza-agirien arabera lizitazioa izapidetzeko dagokion unera atzeratzea erabakitzea, eta aldaketak eragiten ez dien espedienteko egintzak eta dokumentuak gordetzea.

SEGUNDO.- Acordar la retroacción de las actuaciones al momento procedente para tramitar la licitación con arreglo a los pliegos modificados, conservando los actos y documentos del expediente cuyo contenido no resulte afectado por las modificaciones.

ZIURTAGIRIA
Zenbakia: 2026-0013 Data: 29/10/2026
Baliozkotze Kod.: 4W35ZXJZXZ23DHY2Q6LMCWHS6
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 4

Esleipen-prozedura irekitzea xedatzea, baldintza-agiri berrien arabera, prozedura irekiaren eta izapidetze arruntaren bidez.

Disponer la apertura del procedimiento de adjudicación con arreglo a los nuevos pliegos, mediante procedimiento abierto y tramitación ordinaria.

HIRUGARRENA.- Urteko gutxieneko kanona (4.500 euro) eta hasierako iraupena (urtebete) mantentzea, urtez urte luza daitekeena, gehienez ere lau urtez, luzapenak barne, baldintza-agirietan ezarritakoaren arabera.

2026ko irailaren 29ko osoko bilkuraren erabakiaren eraginkortasunari eustea, akordio honek aldatzen ez duen guztian.

TERCERO.- Mantener el canon mínimo anual de 4.500 euros y la duración inicial de un año, prorrogable por periodos anuales hasta un máximo de cuatro años, incluidas las prórrogas, en los términos establecidos en los pliegos.

Mantener la eficacia del acuerdo plenario de 29 de septiembre de 2026 en todo aquello que no resulte modificado por el presente acuerdo.

LAUGARRENA.- Espediente honetarako Kontratazio Mahai hau izendatzea:

- **Lehendakaritza:** Mendaroko Udaleko alkatea.
- **Batzordekideak:**
  - Udaleko idazkari-kontuhartzailea, aholkularitza juridikoko eta ekonomia- eta aurrekontu-kontroleko eginkizunak betez.
  - Herritartasun teknikaria.
  - Gizarte Zerbitzuetako teknikaria.
- **Mahaiko** idazkaria: kontratazioko administraria, hitzarekin baina botorik gabe.

CUARTO.- Designar para este expediente la siguiente Mesa de Contratación:

- **Presidencia:** el alcalde del Ayuntamiento de Mendaro.
- **Vocalías:**
  - La secretaria-interventora municipal, en ejercicio de las funciones de asesoramiento jurídico y de control económico-presupuestario.
  - La técnica de Ciudadanía.
  - La técnica de Servicios Sociales.
- **Secretaría de la Mesa:** la administrativa de Contratación, con voz y sin voto.

Eta Kontratatzailearen Profilean argitaratzeko agintzea.

Y ordenar su publicación en el Perfil del Contratante.

BOSGARRENA.- Lizitazio-iragarkia, aldatutako baldintza-agiriak eta dagokion kontratu-dokumentazioa udalaren

QUINTO.- Publicar el anuncio de licitación, los pliegos modificados y la documentación contractual correspondiente en el perfil de

ZIURTAGIRIA
Zenbakia: 2026-0013 Data: 29/10/2026
Baliozkotze Kod.: 4W35ZXJZXZ23DHY2Q6LMCWHS6
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 4

kontratatzaile-profilean argitaratzea, eta hogeita hamar (30) egun naturaleko epe osoa ematea eskaintzak aurkezteko, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, baldin eta berresten bada kontratua ez dagoela erregulazio harmonizatuaren mende.

contratante del Ayuntamiento, concediendo un plazo íntegro de treinta (30) días naturales para presentar ofertas, contado desde el día siguiente al de la publicación del anuncio, siempre que se confirme el carácter no sujeto a regulación armonizada del contrato.

SEIGARRENA.- Alkatetzari ahalmena ematea akordio hau betetzeko behar diren exekuzio-egintzak egin eta dokumentuak sinatzeko, eskumenen legezko banaketa aldatu gabe eta baimen honen bidez esleipenerako edo kontratu-aldaketarako ahalmenik eman gabe.

SEXTO.- Facultar a la Alcaldía para realizar los actos de ejecución y suscribir los documentos necesarios para dar cumplimiento al presente acuerdo, sin alterar la distribución legal de competencias ni atribuir por esta autorización facultades de adjudicación o modificación contractual no comprendidas en ella.

Ziurtagiri hau ematen da, akta onartzearen erreserba eginda, Mendaron, agiri honen bazterrean adierazitako egunean.

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA/ DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE

ZIURTAGIRIA
Zenbakia: 2026-0013 Data: 29/10/2026

Baliozkotze Kod.: 4W35ZXJZXZ23DHY2Q6LMCWHS6
Egiaztapena: https://mendaro.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 4